



Asociación Cultural **Ikertze** Kultur Elkarlea
Pl. Txalupagillene 2 bajo. 20009 Donostia
Tel.-Fax: 943 31 04 61 · ikertze@ikertze.org
www.ikertze.org

Proposamen didaktiko hau lantzeko aholku metodologikoak:

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekinekin konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barnerratu. Aurrera pausu horiek ikasleek beraien egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarriketa horiek gerta daitezkeen beharrezko baldintzak ahalbideratzea. Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko baliabide dituzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailerako sustatzeko baliagarri gerta daitezkeenak:

Arakatu	Nola jakin dezakegu...? Nola bila dezakegu...?
Hipotesiak formulatu	Zer azalpen izan dezake honako honek? Zer gertatuko litzateke baldin eta...?
Beste bide batzuk bilatu	Zer beste modutan azal dezakegu...? Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?
Definitu	Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?
Parekotasunak eta desberdintasunak bilatu	Zer dute komunean...?
Sailkatu	Zenbat modutan sailka dezakegu?

Arrazoiak eskatu	Zer arrazoi duzu honako hori esateko?
Ondorioak atera	Baieztapen hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?
Kausak eta ondorioak erlazionatu	Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?
Hitzezkoa ez den hizkuntzatik hitzezkoa itzuli	Zer adierazi nahi du keinu horrek?
Laburtu	Hitz gutxitan azal dezakezu...?

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarrizketa du oinarri beraz, azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jarri daitezke elkarrizketaren bidez; beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu; gure iritziak argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu (modu honetan errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekiko enpatia izatea).